



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko maiatzaren 8a

59. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Zientzia eta teknologiari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Iruñeko espetxera ekar ditzan zigorra beste espetxe batean betetzen ari diren preso nafar guztiak edo errotzea Nafarroan duten pertsona guztiak. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioek eta Ezkierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non bertan jasoko baita adostasunik gabeko sexu-harremanak sexu-erasoa direla; alegia, bortxaketa. Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua dei dezan eta 2019tik 2023ra bitarteko Enplegu Plana aurkez dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (6. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, PFEZari buruzko Foru Legeko 68. artikulua araberako eskubidea duten alargunen kopuruari eta aurrerakinak kobratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Galdera, Tebasko gaztelu-jauregiaren hondakinen harresietan haga bat, bandera eta guzti, jartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Galdera, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 629/2017 Ebazpenean ezarritakoa baino ratio handiagoa daukaten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan bajak ordezteko debekuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Galdera, Nafarroan alargun-pentsioa kobratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—Galdera, Gizarte Zerbitzuen Zorroan zeharka kudeatutako Zerbitzu Publikoen Maparen emaitzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

- Galdera, Nafarroan bakardadean dauden pertsoneri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, 70.000 eurotik gorako zenbatekoak dauzkaten enpresei BEZa itzultzearen ondorioz Nafarroako Administrazioaren diruzaintzari itzuli beharreko zenbatekoei, epeei eta afekzioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, amatasun/aitatasun baimenen kasuan PFEZetik salbuesteko irizpideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Paueko Parlamentuarekiko eta erakundeekiko protokolo- eta lan-harreman instituzionalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, atzerrian bizi eta hainbat zentrotan antolatuta dauden nafarrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Zientzia eta teknologiari buruzkoa.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-tereko eledun José Miguen Nuin Moreno jaunak eskatu du Zientzia eta teknologiari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea luzatzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikuluaekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Zientzia eta teknologiari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2018ko maiatzaren 16ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege proiektua 2018ko apirilaren 13ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Iruñeko espetxera ekar ditzan zigorra beste espetxe batean betetzen ari diren preso nafar guztiak edo errotzea Nafarroan duten pertsona guztiak.**

*GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU TALDE PARLAMENTARIOEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da Iruñeko espetxera ekar ditzan zigorra beste espetxe batean betetzen ari diren preso nafar guztiak edo errotzea Nafarroan duten pertsona guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2017ko otsailaren 9an Estatuko Gobernuak idatziz adierazi zuen Nafarroako Foru Komunitatean bizi ziren pertsonetatik Iruñeko espetxean zeudenak 226 zirela. Halaber, nafarrak izan edo Nafarroako Foru Komunitatean errotuta egon eta beste espetxeetan zeuden pertsonak 200 ziren.

Aipatu datuak 2017ko abenduaren 30ean eguneratu zirenean, egoitza Nafarroako Foru Komunitatean zeukaten pertsonetatik Iruñeko espetxean

zeudenak 218 ziren. Halaber, nafarrak izan edo Nafarroako Foru Komunitatean errotuta egon eta beste espetxeetan zeuden pertsonak 177 ziren. Halaber, Iruñeko espetxean zigorra betetzen ari izan eta beste autonomia erkidego batean errotuta zeuden pertsonak, guztira, 39 ziren, eta jatorri ezezaguneko pertsonak 26 ziren.

2017ko urriaren 2an Nafarroako Parlamentuak erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere borondatea dela Nafarroak balia ditzan Foruaren Hobekuntzan esleituta dauzkan Iruñeko espetxearen gaineko eskumen historikoak. Aipatu erabakian, besteak beste, honako hau onesten da: "3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan nafarrak izan edo Nafarroan errotuta egon eta Nafarroatik kanpo zigorra betetzen ari diren berrehun preso inguru Iruñera ekarriak izan daitezzen, baldin eta hori bada haien nahia, eskubide hori espetxe arloko legeriak berak aitortzen baitu".

Berriki jakin da Iruñeko kartzelan preso zeuden pertsonetatik gutxienez hiru beste espetxe batzuetara eramán dituztela, haien famili errotzea Nafarroan izan arren. Martxoaren 6an, famili errotzea Nafarroan zeukan beste preso bat hil zen, Puerto III espetxean (Cádiz),

Erabaki hori betetzeko, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua, zehazki Barne Ministerioa, premiatzen du ahalik lasterren Nafarroako Parlamentuari honako informazio hau igor diezaion:

a. Nafarroakoak izan edo Nafarroan erroturik dauden (halakotzat harturik espetxean sartu baino gutxienez ere urtebete lehenagotik Nafarroan errolatuta daudenak) pertsonetatik zenbat ari

diren zigorra betetzen Estatuko beste espetxe batzuetan, eta zeinetan.

B. Beste espetxe batean daudenetik zein diren beraiek erabakita han daudenak eta zein espetxe-administrazioak erabakita. Espetxe-administrazioaren erabakia denean, haren zergatiak.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du Iruñeko espetxera berehala ekar ditzan nafarrak diren edo Nafarroan

erroturik dauden preso guztiak, zigorra beste espetxe batean betetzen ari direnak; betiere, interesdunek haien adostasuna adierazten badute.

3. Erabaki hau Barne Ministerioari eta Ministroen Kontseiluari igorriko zaie.

Iruñean, 2018ko apirilaren 21ean

Foru parlamentariak: Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Bakartxo Ruiz Jaso eta Carlos Couso Chamarro

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuari premiatzen da Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non bertan jasoko baita adostasunik gabeko sexu-harremanak sexu-erasoa direla; alegia, bortxaketa.**

### **GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuari premiatzen baita Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non bertan jasoko baita adostasunik gabeko sexu-harremanak sexu-erasoa direla; alegia, bortxaketa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko eledun Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Amnistia Internazionalaren txosten baten arabera, Europako 33 herrialdeetatik soilik 9k aitortzen dute adostasunik gabeko sexua bortxaketa dela. Egitate horrek zigorgabetasun-mezua helarazten die erasotzaileei, eta emakumeei eta gizarteari oro har igortzen dien ideia da emakumeei

beste inori ez dagokiola bortxaketetatik babestea eta erasoak iraun bitartean indarkeria edo larderia egon zela frogatzea. Hori onartezina da, eta aldatu egin beharra dago, baldin eta emakumeak egiaz libreak diren berdintasunezko gizarte bat eraiki nahi badugu benetan.

Amnistia Internazionalak dioenez, “adostasunean oinarritutako definizioak daukate Ingalaterran eta Galesen, Eskozian, Ipar Irlandan eta Irlandako Errepublikan, bai eta Belgikan, Zipren, Luxenburgon eta Alemanian ere”. Europa iparraldeko herrialdeetan –Suedian, Danimarkan eta Finlandian, kasu– oso aurreratuta daukate legeak aldatzeko proposamenak, eta Islandian legealdaketa bat egin berri dute adostasunean oinarritutako definizio bat ezartze aldera. Islandiako parlamentari Jón Steindór Valdimarsson-ek adierazi zuenez, “litekeena da lege hau baliagarri gertatzea adostasunik gabe gertatzen diren sexu-harremanak eragozteko. Nire ustez, hau da lege honen ondorio nagusia”.

GKE horren arabera, “bortxaketaren legezko definizioa, adostasun ezean oinarritutakoa, ez da ez berria ez berritzailea ere. Giza eskubideei buruz nazioartean onartutako arau bat da. Emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak (Istanbulgo Hitzarmena), zeina emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeria borrokatze aldera orain arte lortu den esparru juridiko osatuena dela uste baita, hitzarmena sinatu duten herrialdeak behar izango dituzte adostasunik gabe egindako sexu-egintza

oro zigortzera. Istanbulgo Hitzarmena Europako hogei estatu baino gehiagok berretsi badute ere, horietako gehienek ez dituzte oraindik aldatu bortxaketari buruzko beren lege-definizioak”.

Azken bost urteotan, gainera, NBEko Emakumearen kontrako diskriminazioa desagerrarazteko Batzordeak (CEDAWeko Batzordeak) Europako zenbait estatu premiatu ditu bortxaketari buruzko beren legedia nazioarteko arauekin harmoniza dezaten –baita Istanbulgo Hitzarmenarekin ere–, eta bortxaketaren definizioa adostasunik ezean oinarrituta egin dezaten.

Kontuan hartu beharra dugu, orobat, ideologia patriarkalak gaur egun oraindik ere oihartzun sozial handia daukala. Adibidez, genero-indarkeriari buruz Europako Batzordeak 2016an egindako inkestan, elkarrizketatutako pertsonen ia heren batek adierazi zuen beren ustez “zenbait kasutan” justifikatuta egon litekeela adostasunik gabeko sexu-harremana; esate baterako, alkoholaren edo drogen eragina, biktimari etxera borondatez laguntzea, haren janzkera edo erresistentzia aktiborik eza.

([https://data.europa.eu/euodp/data/dataset/S2115\\_85\\_3\\_449\\_ENG/resource/d9160123-8dad-4400-bbb3-ffa35daca2cb](https://data.europa.eu/euodp/data/dataset/S2115_85_3_449_ENG/resource/d9160123-8dad-4400-bbb3-ffa35daca2cb))

Halere, Amnistia Internazionalak dioen bezala, errealitatea da “ohiko erantzun fisiologiko eta psikologiko gisa onartua” izan dela “sexu-erasoko egoera baten aitzinean blokeatzea, halako moduan non kasuko pertsona gaitasunik gabe geratzen baita erasoari aurre egiteko, mugitu ezinik geratzeraino, hainbatetan”. Suedian egindako azterlan baten arabera, bortxaketa batetik bizirik ateratako emakume ebaluatuen % 70ek pairatu zuten “nahi gabeko paralisia” erasoak iraun zuen bitartean. Bestalde, zoritxarrez badakigu erresistentzia erakutsi izan duten emakume asko indarkeriaz kolpatuak izan direla, eta are erailak ere.

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non bertan jasoko baita sexu-erasoa direla –bortxaketa, alegia– adostasunik gabeko sexu-harremanak.

Iruñean, 2018ko apirilaren 27an

Eleduna: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiatzen da Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua dei dezan eta 2019tik 2023ra bitarteko Enplegu Plana aurkez dezan.**

### **NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari premiatzen baita Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua dei dezan eta 2019tik 2023ra bitarteko Enplegu Plana aurkez dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 9-18/ITP-00007 interpelaziotik heldu den honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua dei dezan eta 2019tik 2023ra bitarteko Enplegu Plana aurkez dezan.

### Zioen azalpena

Europako demokrazia aurreratuek bereizgarri dute, besteak beste, elkarrizketa sozial iraunkorra instituzionalizatuta edukitzea administrazio publikoen eta ordezkartasun handieneko sindikatu nahiz enpresaburu-erakundearen artean, gizartearen hobekuntza orokorraren aldeko politika komunak taxutu eta parte hartzeko bitarteko gisa.

Garapen ekonomiko eta sozialerako funts-funtsezkoak dira elkarrizketa- eta akordio-esparruak, gobernuen eta ordezkartasun handieneko solaskide sozialen artekoak. Europar Batasunean, aurre-rapauso guztiz nabarmenak ematen ari dira elkarrizketa iraunkorreko esparru horien instituzionalizazioan. Europa 2020 Estrategiak barnean hartzen ditu solaskide sozialak, oinarritzko parte bat direlakoan bai kontsultarako bai parte hartzeko, Europar Batasunean gobernantza publikoa eta erreforma ekonomikoak eta sozialak hobetze aldera.

Konstituzioak aitortu egiten du ordezkartasun handiena duten enpresa-erakunde eta sindikatuek berezkoak dituzten interesak defendatu eta sustatzeko daukaten zeregina, eta, nolakotasun horre-

kin, konstituzio mailako garrantzia ematen die. Agindu horren babesean, Nafarroan onetsi egin zen Nafarroako Elkarrizketa Sozialerako Kontseilua sortzea, gizarte-eragile horiekiko aitorten formal gisa, eta, halaber, behar dituzten eremu instituzionalak emateko, berezkoak dituzten interes ekonomiko eta sozialen defentsaren eta sustapenaren zeregina bete ahal izan dezaten. Defentsa horren adierazpen gorena da, hain zuzen, enplegu planak prestatzea, dokumentu horiek irudikatzen baitute enplegu eta garapen arloko politika osoa, gai horretan Nafarroako Foru Komunitateko politika markatuko duena.

2017ko urtarrilaren 25ean, Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluko Batzorde Iraunkorrek Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluan onetsi beharreko Enplegu Plana prestatzeko ibilbide-orria erabaki zuen, besteak beste.

Hori dela-eta, talde parlamentario sozialistak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Elkarrizketa Sozialaren Kontseilua dei dezan urgentziaz, betearazte aldera Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluko Batzorde Iraunkorrek 2017ko urtarrilaren 25ean sinatutako akordioa, Enplegu Plan bati buruzko konpromisoa ezarri zuena.

2. Nafarroako Parlamentuak Gobernua premiatzen du aurtengo iraila baino lehen igor dezan 2019tik 2023ra bitarteko Enplegu Plana, aldeztatik Elkarrizketa Sozialaren Kontseiluarekin adostua.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 3an

Eleduna: María Chivite Navascués

**F saila:**  
**GALDERAK**

**Galdera, PFEZari buruzko Foru Legeko 68. artikulua arabera kenkarietarako eskubidea duten alargunen kopuruari eta aurrerakinak kobratzeari buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, PFEZari buruzko Foru Legeko 68. artikulua arabera kenkarietarako eskubidea duten alargunen kopuruari eta aurrerakinak kobratzeari buruzkoa. Galdera 2018ko otsailaren 2ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du PFEZari buruzko Foru Legeko 68. artikulua arabera kenkarietarako eskubidea duten alargunen kopuruari eta aurrera-

kinak kobratzeari buruz (9-18/PES-00024). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan zenbat alargunek izan dute kenkarietarako eskubidea PFEZari buruzko Legearen 68. artikulua arabera, 2007tik 2017ra bitarte? Zehaztu, urtez urte.

Beste ezer baino lehen, ohartarazi beharra dago, aipatutako 68. artikuluan xedatutakoaren arabera, kenkari gehigarri horren subjektu pasiboa alargun-pentsio mota jakin batzuk jasotzen dituztenak direla; horrenbestez, kenkari hori ez da soilik emakume alargunentzat. Departamentu honetan dauden datuen arabera, kalkulatu da gutxienez ere kenkari horien aurrerakinaren modalitatean % 99,79 emakume alargunei dagozkiela; gainerakoak (% 0,21) gizonezko alargunei dagozkie. Sistema fiskalaren datu agregatuak ematen direnez, pertsonen dagozkien zifrak ematen dira, ez emakume alargunei dagozkienak.

Errentaren kanpaina	Alargun-pentsioen ondoriozko kenkari fiskala duten pertsonen kopurua
<b>PFEZ/2007</b>	10.700
<b>PFEZ/2008</b>	11.221
<b>PFEZ/2009</b>	11.269
<b>PFEZ/2010</b>	10.978
<b>PFEZ/2011</b>	10.622
<b>PFEZ/2012</b>	10.212
<b>PFEZ/2013</b>	9.832
<b>PFEZ/2014</b>	9.464
<b>PFEZ/2015</b>	9.232
<b>PFEZ/2016</b>	9.099
<b>PFEZ/2017</b>	Likidatu gabe dago. Horrenbestez, daturik ez dago 2018ko udaberriko kanpaina egin arte.

**1. oharra:** Urte fiskal bateko kenkariak bat datoz urte horretako kanpainarekin, zeina hurrengo urtean baita, eta orduan likidatzen dira; hau da, 2007ko kenkariak 2007ko PFEZaren kanpainari dagozkie, eta 2008ko udaberrian likidatu ziren. Hori dela eta, oraindik ere ez dago daturik 2017ko kanpainaren likidazioari buruz, zeren eta 2018an egingen baita.



Horietako zenbatek eskatu diote Nafarroako Gobernuari aurrerakina eta zenbatek jaso dute 2007tik 2017ra bitarte, urtez urte?

Beste ezer baino lehen, esan beharra dago aurrerakinak izapidetzearen eta zergaren likidazioaren artean (orduan jakiten baita zeintzuek egin duten aitortpena kenkari gehigarriarekin) dagoen denbora-desfasea dela eta, ez dagoela daturik beren aitortpenean kenkaria jaso duten pertsonen

buruz, ez eta aurrerakina eskatu duten ala ez duten eskatu jakiteko daturik ere.

Dakiguna da aurrerakinen zenbat eskari egin diren (1. zutabea), bai eta zenbat aurrerakin onartu diren (2. zutabea). Gainera, kontuan hartu beharra dago eskariak eragina dutela aurrerakina aitortzen den urtetik aurrera (urte hori barne); hori dela eta, onuradunak dira aurrerakinerako eskubi-dea ematen duten baldintzak betetzen jarraitzen dutenak (3. zutabea).

Errentaren kanpaina	Aurrerakin eskariak	Onartutako aurrerakinak	Aurrerakinaren onuradun direnak, guztira
<b>PFEZ/2007</b>	1177	863	8113
<b>PFEZ/2008</b>	1229	924	8133
<b>PFEZ/2009</b>	973	721	8057
<b>PFEZ/2010</b>	927	681	7911
<b>PFEZ/2011</b>	802	600	7712
<b>PFEZ/2012</b>	765	583	7425
<b>PFEZ/2013</b>	660	505	7134
<b>PFEZ/2014</b>	656	505	6733
<b>PFEZ/2015</b>	740	581	6404
<b>PFEZ/2016</b>	689	479	6119
<b>PFEZ/2017</b>	1374	966	5734

**2. oharra:** Aurrerakinak urte fiskalean ordaintzen dira; horregatik, 2017ko errentaren kanpainako datuak badauzkagu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko otsailaren 23an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

## **Galdera, Tebasco gaztelu-jauregiaren hondakinen harresietan haga bat, bandera eta guzti, jartzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tebasco gaztelu-jauregiaren hondakinen harresietan haga bat, bandera eta guzti, jartzeari buruzkoa. Galdera 2018ko otsailaren 2ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Alberto Catalán Higuera foru parlamentariak idatziz erantzuteko galdera egin du Tebasco gaztelu-jauregiaren hondakinen harresietan haga bat, bandera eta guzti, jartzeari buruz (9-18/PES-00025). Hauxe erantzun dio Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak:

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak badaki haga bat jarri zela Tebasco gaztelu-jauregiaren horma batean. Hura jartzeko, Tebas-Muru Artederretako Udalak baimena eskatu zuen, 2009ko irailaren 25ean sinatutako proiektu bate-

kin. Proiektu hori Ondare Arkitektonikoaren Atalari igorri zitzaion, txostena eman zezan.

Eskari horri erantzunez, 2009ko irailaren 29an, jarduketa horrekiko adostasun-txostena sinatu zuen Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko Ondare Historikoaren Zerbitzuko Ondare Arkitektonikoaren Atalak. Egun hartan bidalitako txostenak honako hau aipatzen du: "aurkeztutako dokumentazioa ikusita, jakinarazten dizut ados nagoela proposamenarekin, Ondare Arkitektonikoaren Atal honen eskumenekoa denari dagokionez".

Tebas-Muru Artederretako Udalak, horrenbestez, 2009tik eduki du haga hori jartzeko baimena.

Bestalde, Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak ez du uste haga jartzeak eragin negatiboa izan dezakeenik hondakin horiek kontserbatzeari begira.

Hori jakinarazi ahal dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2018ko otsailaren 22an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

## **Galdera, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 629/2017 Ebazpenean ezarritakoa baino ratio handiagoa daukaten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan bajak ordeztzeko debekuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 629/2017 Ebazpenean ezarritakoa baino ratio handiagoa daukaten Haur eta Lehen

Hezkuntzako ikastetxeetan bajak ordeztzeko debekuari buruzkoa. Galdera 2018ko otsailaren 2ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES 00026 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak bere artikuluetan jasotzen du derrigorrezko hezkuntzako ikasgela bakoitzeko gehieneko ikasle-kopurua 25ekoa izanen dela lehen hezkuntzan.

Aurrekoa gorabehera, Hezkuntzaren esparruan gastu publikoa arrazionalizatzeko presako neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuak honako hau ezartzen du ikasgela bakoitzeko ikasleen ratioei buruz ari dela:

“Gastu publikoa murriztu beharra dagoela-eta Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak Enplegu Eskaintza Publikoaren bidez langile berriak hartzea baimentzen ez badu edo 100eko 50etik beherako langileen berritze-tasa ezartzen badu, oinarritzko izaeraz, hezkuntza-administrazioek 100eko 20raino igo ahal izango dute maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren 157.1.a) artikuluan finkatutako ikasleen gehieneko kopurua, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Ehuneko hori bera aplikatu ahal izango zaie, halaber, maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak araututako gainerako irakaskuntzetarako arauz ezarritako ikasleen kopuruen gehieneko mugei.

Artikulu honetan ezarritakoa ikastetxe publikoetara nahiz funts publikoak euskarri dituzten ikastetxe pribatuei aplikagarria izango zaie”.

2015eko abenduan, Hezkuntzako kontseilariak iragarri zuen 2016-17 ikasturtetik aurrera haur eta lehen hezkuntzako bigarren zikloko taldeetako ratioak berriz ere 25 ikaslekoak izanen direla ikasgela bakoitzeko. Neurri hori sare publikoko ikastetxe gehienetan aplikatu zen aipatutako ikasturtetik aurrera eta 2017-18 ikasturte osoan. Kontuan hartuta jada ez direla ematen aipatutako errege lege dekretuan aipatzen diren inguruabarrak, Hezkuntza Departamentuak erabaki zuen ratioei buelta

emateko neurri hori bera hartzea funts publikoekin ordaindutako ikastetxe guztietan, Hezkuntzako zuzendari nagusiaren abenduaren 26ko 629/2017 Ebazpenean jasotzen den bezala.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoarekin 157.1.a) artikuluan ezarritakoarekin eta Hezkuntzaren esparruan gastu publikoa arrazionalizatzeko presako neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, gehienez ere 25 ikasleko ratioa ezartzen dela Haur eta Lehen Hezkuntzako maila guztietarako. Gertatuz gero ebazpena onesten den unean ikastetxeren batek ratio handiagoa izatea, ezin izanen dira bajak ordeztu baldin eta horrek arestiko ratioa gainditzea badakar.

Horrenbestez, ez da onargarritzat jotzen egingandako eskaera, zeinak aukera emanen bailuke ratioak taldeko 25 ikasletik gorakoak diren ikastetxeetan gertatzen diren bajak bete daitezzen ezarritako ratioa gainditzeko denean. Gogorarazi beharra dago jada ikasle-postua Nafarroako Foru Komunitatearen funtsekin mantendutako ikastetxe batzuetan duten ikasleei buruz ari garela.

Hala eta guztiz ere, ratioa talde bakoitzeko 25 ikasletik gorakoa den kasuetan onartuko balitz ere bajen balizko kasu batean baja horiek bete ahal izatea itxaron-zerrendan dauden pertsonekin, ez legoke bermaturik egonen aipatzen den familia-birbiltzea gerta dadin, zeren eta kasuistika hori ez baita oso arrunta, eta ez baita ezagutzen familia horien seme-alabek zein toki betetzen duten itxaron-zerrendan. Otsailaren 7an, bilera bat izan zen guraso horien ordezkariekin, eta azaldu zitzaizkien zein arrazoi izan dituen Hezkuntza Departamentuak hartutako erabakia hartzeko, eta jakinarazi zitzaizkien zein plan dituen Departamentuak Lezkairuko Zalduan ikastetxe berri bat egiteko. Gainera, kasu guztiak aztertzeko konpromisoa egon zen, familia-birbiltzeak ingurune hurbileneko ikastetxeetan gauzatzeko; kasu honetan, Mendi-Illorin.

Iruñean, 2018ko otsailaren 23an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuoko ele-duna: María Solana Arana

## Galdera, Nafarroan alargun-pentsioa kobratzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Sáez Barrao andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan alargun-pentsioa kobratzeari buruzkoa. Galdera 2018ko otsailaren 2ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak galdera egin du Nafarroan alargun-pentsioa kobratzeari buruz (9-18/PES-00027). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

*Nafarroan zenbat pertsonak kobratzen dute alargun-pentsioa?*

Gizarte Segurantzaren datuen arabera, 2017an 22.308 dira Nafarroako alargun-pentsioa kobratzen dutenak; horietatik 21.431 emakumeak dira.

*Prestazio horrek zenbat egin zuen 2017an?*

Gizarte Segurantzaren datuen arabera, 2017an, alargun pentsioen hileroko nominaren batez bestekoa 20.761.605,51 eurokoa izan da; horrek 249.139.266,10 euroko balio zenbatetsia ekarri du.

*Nafarroan zenbat alargun dago?*

Departamentuan ez dago datu hori. Erregistro Zibilean eskatu behar da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko otsailaren 23an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

## Galdera, Gizarte Zerbitzuen Zorroan zeharka kudeatutako Zerbitzu Publikoen Maparen emaitzari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Domenech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Gizarte Zerbitzuen Zorroan zeharka kudeatutako Zerbitzu Publikoen Maparen emaitzari buruzkoa. Galdera 2018ko otsailaren 2ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko otsailaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera egin du Gizarte Zerbitzuen Zorroan zeharka kudeatutako Zerbitzu Publikoen

Maparen emaitzari buruz (9-18/PES-00028). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako Departamentuak informatzeko duena:

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren menpekoak diren zorroko zerbitzuei dagokienez, mendekotasun-egoera, desgaitasuna, lanerako edo/eta laneko egokitasuna baloratzeko zerbitzuak eta laguntza-produktuei buruzko orientazio-zerbitzua Departamentuak kudeatzen ditu zuzenean.

Adineko pertsonentzako finantzaketa publikoa duten egoitza-laguntzako 3.000 postuetatik, % 11 Nafarroako Gobernuak kudeatzen ditu zuzenean. Halaber, adineko pertsonentzako eguneko arretako postuen % 7,16 kudeatzen ditu. Aipatu beharra dago egoitzetatik zati handi bat Udalek kudeatzen dituztela, eta horietatik ugari zuzenean kudeatzen dituztela.

Desgaitasunaren eremuan, egoitza-postuetatik % 11 zuzeneko kudeaketakoak dira; eguneko arretako finantzaketa publikoko postu guztiak, berriz, zeharkako kudeaketakoak dira.

Gaixotasun mentalaren arretari dagokionez, berriz ere gertatzen da egoitza-postuetatik % 10,2 Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituela zuzenean; gizarte zerbitzuen eremuko eguneko arretako baliabide guztiek, berriz, zeharkako kudeaketa dute.

Adingabearentzako arretaren arloan, babesgabatasun-egoeren hasierako balorazioa Administrazioari langileek egiten dituzte, bai toki entitateetakoek, bai Haurren eta Familien Zuzendariordetzako langileek, babesgabatasun larriko kasuetan. Zeharka kudeatzen da zentroetan edo urgentziako familietan egiten den balorazioa, adingabea bere ingurunetik atera behar denean, bai eta sexu-abusuko egoeretan ere.

Bai egoitza-baliabideen, bai esku-hartze anbulatorioko baliabideen kudeaketa zeharkakoa da, eta irabazi asmorik gabeko entitateen bitartez egiten da.

2016an, baliabideen azterlan konparatibo bat egiten hasi zen, adinekoentzako egoitza-zentroetatik hasita. Azterlan horrek emaitzak eman izan ditu zuzeneko kudeaketa duten baliabi-

deen eta zeharkako kudeaketa duten baliabideen arteko alderaketan, egiturari, langileei eta kostuei dagokienez. Azterlan hori hiru zentrotan egin zen, 2015eko ekitaldian emandako datuekin: bata propioa zen, bestea udal kudeaketakoa eta azkena pribatua. Egoitza-zentroetan egindako prozesu eta lan guztien analisisian oinarritutako balorazioa egin zen, mendekotasun-mailak bereiziz eta maila horietako bakoitzari esleitutako langile-ratioak kalkulatu. Une hauetan, azterlan hori osatzen ari da zentro horietan beraietan 2016an zehar bildutako datuen alderaketarekin.

Adingabeentzako baliabideei dagokienez, egin den azkeneko azterlana da Nafarroako Foru Komunitateko familiei, haurrei eta nerabeei laguntza emateko II. Plan Integralerako egindako diagnostikoa da.

Azkenik, aipatu beharra dago Departamentua azterlan bat amaitzen ari dela zerbitzu batzuk kudeaketa publikora aldatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko otsailaren 26an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

## **Galdera, Nafarroan bakardadean dauden pertsonen buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroan bakardadean dauden pertsonen buruzkoa. Galdera 2018ko otsailaren 2ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du

Nafarroan bakardadean dauden pertsonen buruz (9-18/PES-00029). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

- Daturik ez dago gure erkidegoan bakarrik bizi diren biztanleei buruz. Gaur arte, Nafarroako Gobernuak ez du inongo azterlanik Nafarroan bakardadea pairatzen duten pertsonak identifikatzen dituenik.

Arazo horretarako hurbilketa gisa, I-txaropenaren Telefonoak jasotako deien estatistika bat eman du, eta hartan identifikatzen da deietatik zeinetan bakardadearen faktoreak zerikusia duen deiaren arrazoiarekin.

**Deien portzentajea, bakardade arazoak tarteko direnean**

Urtea	Artatutako dei-kopurua	Bakardadea tartean deneko deiak	%
2018*	1.291	278	21,53
2017	7.529	1.710	22,71
2016	5.380	1.070	19,89
2015	3.946	615	15,59
2014	3.880	499	12,86
2013	3.971	593	14,93
2012	3.263	518	15,87

\* 2018-01-01etik 2016-02-19ra bitarteko datuak

Iturria: Itxaropenaren telefonoa

- Etxebizitza plan berria egitearen esparruan, eta bakarrik bizi diren adineko pertsonen gorantz doazen arazoen testuinguruan, datozen hilabetee-tan Eskubide Sozialetako Departamentuko Errealitate Sozialaren Behatokiak analisi dokumental bat egingen du, ezagutzeko zein esperientzia eta jokabide egoki izan diren Estatu osoan eta Europar Batasunean errealitate hori eta gazteen emantzipazioaren eta alokairuko etxebizitzaren beharri-zanak lotzen dituztenak. Berrikuspen bibliografiko hori oinarria izan liteke bi errealitate horiek batzen dituen programa pilotu baterako, zeinak, hasteko eta behin, eragin positibo argiak baitaizka (belau-naldien arteko inplikazio soziala, harreman sozial gehiago bakarrik bizi diren adineko pertsonentzat, adineko pertsonentzako ekarpen ekonomikoa, alokairu-gastu txikiagoa gazteentzat eta abar).

- Arreta soziosanitario integratuaren sistema garatzearen eta haren Tafallako barrutiko pilotatzearen testuinguruan, zenbait profil identifikatu dira zeinetan barrutiko gizarte zerbitzuek eta osasun-zerbitzuek arreta bateratua eta integratua eman baitezakete. Profil horietako bat bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako pertsonena da, bi irizpide horiek (adina eta bakardadea) talde hori osasun-

arazoak pairatzeko moduan jartzen duten arrisku-faktoreak baitira, bi sistemen esku-hartze integratua eskatzen dutenak.

Proiektu pilotuak aurreikusten du bai osasun-etxeek, bai oinarrizko gizarte zerbitzuek bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako pertsonak identifikatzea (arrisku-populazio gisa identifikatuta egonen dira). Populazio horri galbahe bat pasako zaie, eta horren bidez zehaztuko da ea una hauetan bi sistemen esku-hartze integratu bat behar duten, eta hala izanez gero, esku-hartzerako helburuak eta hartu beharreko neurriak ezarriko dira, bai eta erreferentziako profesionala nor izanen den ere. Une honetan esku-hartze integraturik behar ez badute, jarraipen-plan bat zehaztuko du edo oinarrizko gizarte zerbitzuak edo osasun-etxeak, pertsona bakoitzaren ezaugarri berezien arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko otsailaren 23an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

## **Galdera, 70.000 eurotik gorako zenbatekoak dauzkaten enpresei BEZa itzultzearen ondorioz Nafarroako Administrazioaren diruzaintzari itzuli beharreko zenbatekoei, epeei eta afekzioei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, 70.000 eurotik gorako zenbatekoak dauzkaten enpresei BEZa itzultzearen ondorioz Nafarroako Administrazioaren diruzaintzari itzuli beharreko zenbatekoei, epeei eta afekzioei buruzkoa. Galdera 2018ko otsailaren 2ko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera bat egin du. Galdera hori 9-18/PES-00030 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuak horri buruz ematen dion informazioa:

Galdera:

*Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak urtarrilaren 24an iragarri zuen Nafarroako Zerga Ogasunak BEZaren itzulketa aurreratuko diela aurten 70.000 eurotik gorako zenbatekoak dauzkaten enpresei, eta lehentasuna emanen diela informazioa berehala emateko sistematik heldu diren betebeharrak betetzen:*

*Horri buruz, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:*

*– Itzuliko diren zenbatekoen aurreikuspena*

Hasiera batean, aurreikusita zegoen 2018an eskatzaileen hileko kuota negatiboen itzulketa egitea; hain zuzen ere, 2017ko uztailetik 2018ko ekainera arte, biak barne, sortutako 70.000 eurotik gorako kuotak itzultzeko dituzten eskatzaileenak.

Iragarritako neurri berriarekin, aurreikusi da 2017ko uztailetik 2018ko abuztura, biak barne, sortutako kuotak itzultzea, bai eta 2017ko ekaineko kopuruak ere, 2017ko abenduan arazo teknikoak tarteko itzuli ez zirenak eta 2018ko urtarrilaren lehenengo egunetan itzuli direnak. Horrenbestez, aurreikusi da ekitaldi honetan 15 hileko-kuotak i-

tzultzea. Une hauetan, ezin da jakin zein kopuru itzuliko diren, zeren eta aurkeztu den azken aitorpena 2017ko abendukoa baita. Hala eta guztiz ere, jo da hileko bat aurreratzearen kostua 35 milioi euro ingurukoa izanen dela.

70.000 eurotik gorako kuoten hileko BEZaren itzulketa aurreratzeaz gainera, aurreikusi da Nafarroako enpresen 2017ko Sozietateen gaineko Zergaren kuota negatiboen itzulketa aurreratzea. Itzulketa horiek sortzapenaren datatik hasi eta 6 hilabeteko epean egiten ari ziren; horrenbestez, epe horiei jarraituz, 2019ko urtarrilean eginen lirarteke. Hala eta guztiz ere, ordainketa horiek 2018ko azaroan eta abenduan eginen dira. Zenbatekoa ez da ezagutuko 2017ko aitorpenak aurkeztu diren arte, 2018ko uztailean, baina kalkulatu da neurri horrek 30 milioi euro inguruko kostua izan dezakeela.

*– Aurreikusten diren batez besteko itzulketa-denborak*

Aurreikusita dago BEZaren itzulketak aurrertzen hastea jada otsail honetan, hilabete horretako bigarren hamabostaldian 2017ko urriari dagozkion saldoak itzultzearekin –horiek martxoaren lehen hamabostaldian itzultzea aurreikusita zegoen–. 2017ko azaroko itzulketa, apirilaren lehenengo hamabostaldirako aurreikusita zegoena, martxoaren lehenengo hamabostaldira aurreratuko da. Hortik aurrera, itzulketa-erritmo jarraitua egonen da, eta hartan aurreikusi da bi hilabete eta erdiko itzulketa-epea izatea, kasuko sortzapenaren datatik hasita.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, itzulketarako aurreikusi den epea sortzapenetik hasi eta 4 hilabete ingurukoa izanen da.

*– Neurri horrek Nafarroako administrazioaren diruzaintzan izan lezakeen eragina*

Kalkulatu da aurrerapen horiek 130 milioi euro ingurukoak izanen direla.

Hori guztia jakinarazten dizut, Erregelamenduen 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko otsailaren 23an

Ogasuneko eta Finantza Politikako Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak modu digitaletan sinatua: Mikel Aranburu Urtasun

## **Galdera, amatasun/aitatasun baimenen kasuan PFEZetik salbuesteko irizpideari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galdearen erantzuna, amatasun/aitatasun baimenen kasuan PFEZetik salbuesteko irizpideari buruzkoa. Galdera 2018ko otsailaren 9ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du. Galdera hori 9-18/PES-00032 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Galdera:

*Zein da Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren irizpidea amatasun/aitatasun baimenen kasuan PFEZetik salbuesteari buruz?*

Erantzuna:

**1.a** Amatasunagatiko salbuespenaren erregulazioa abenduaren 30eko 35/2003 Foru Legean

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 30eko 35/2003 Foru Legeak, 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legearen 7. artikuluen k) letra aldatu zuen, eta lehenengo aldiz salbuetsitako errenten artean sartu zituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan ezarritako prestazioak, bai eta jaiotzagatiko, erditze multipleagatiko, adopzioagatiko, amatasunagatiko eta seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatiko prestazioak ere.

Honako hau zen arau horren testua: “Halaber, salbuetsirik egonen dira ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretua, ekainaren 27ko 241/2000 eta ekainaren 27ko 242/2000 foru dekretuek arautzen dituzten prestazio ekonomikoak, hala nola jaiotzagatik, erditze multipleagatik, adopzioagatik,

amatasunagatik eta seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik onartuak diren gainerako prestazio publikoak.”

Ikus daitekeen bezala, legearen testuak berak bereizketa argia ezartzen du tributaziotik salbuesita egon daitezkeen errenten artean, eta salbuesten ditu, besteak beste, jaiotzagatiko prestazio publikoak eta amatasunagatiko prestazio publikoak. Horrenbestez, prestazio publiko desberdinak dira, kontzeptu desberdinei dagozkienak: batzuk jaiotzari dagozkio; besteak, berriz, amatasun bajaren egoerari.

**2.a** Amatasunagatiko salbuespenaren erregulazioa abenduaren 26ko 225/2012 Foru Legean

Aurreko erredakzioa, zeinean bai jaiotzagatiko prestazio publikoak, bai amatasunagatikoak tributaziotik salbuesita baitaude, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin aldatu zen abenduaren 26ko 22/2012 Foru Legearen bitartez; honako hau ezarri zuen foru lege horrek:

“Salbuetsiak egonen dira, halaber, gizarte zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan ezarritako prestazio ekonomikoak, bai eta gizarteratze-errenta eta prestazioak eta sorospenak agortuak dituzten langabetuentzako laguntzak ere, biak Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legean ezarriak. Era berean, salbuetsiak egonen dira jaiotzagatik, adopzioagatik, seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik, adingabeak hartzeagatik, zurztasunagatik edo haur batez baino gehiagoz erditzeagatik edo beste horrenbeste adoptatzeagatik emandako gainerako prestazio publikoak, bai eta jaiotza-tasa sustatze aldera eta langileen lana eta familiako bizitza ongi uztartzeko kasuan kasuko deialdien bidez familiaren arloan emandako laguntzak ere”.

Legearen testuak hitzez hitz esaten duenetik ondorioztatzen da aldaketa horrek eutsi egiten diela jaiotzagatiko prestazio publikoen salbuespenari, baina ez amatasunagatiko prestazioen salbuespenari; hori dela eta, haiek direla-eta zerga ordaindu beharra dago 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Bestalde, aipatutako 22/2012 Foru Legearekin batera zetorren oroitidazkia ezin argiagoa zen PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bategine-



ko 7.k) artikuluan sartutako aldaketen azalpenari zegokionez; amatasun bajarengatiko salbuespenei buruzko aldaketak ziren horiek.

Hitzez hitz ematen dugu azalpen-oroitidazkiaren erredakzioa:

“Hiru apartatuak 7.k) artikulua azken parafoaren erredakzioa aldatzen du. 2013ko urtarriaren 1etik aurrerako ondorioekin.

(...) Desagertu da amatasunagatiko prestazio publikoaren salbuespenaren aipamena, Gizarte Segurantzatik edo Nafarroako Gobernutik amatasunagatiko laneko baja dela-eta kobratutako hileko prestazioen salbuespena kentze aldera”.

Horrenbestez, argi eta garbi baieztatu daiteke “voluntas legislatoris” delakoa (hau da, legegile nafarraren borondatea) argia eta erabatekoa zela: Gizarte Segurantzatik edo Nafarroako Gobernutik amatasunagatiko laneko baja dela-eta kobratutako hileko prestazioen salbuespena kentzea.

**3.a** Auzitegi ekonomiko administratibo zentralaren doktrina

Aurrekoaz gainera, eta oinarri hartuta Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzekoa den foru araudia argia eta erabatekoa dela, komeni gogora ekartzea ezen Estatu mailan, 2017ko martxoaren 2an, Auzitegi Ekonomiko Administratibo Zentralak ebatzi duela, irizpide bateratuarekin, Gizarte Segurantzak ordaintzen duen amatasunagatiko prestazioa ez dela PFEZetik salbuetsitako errentatzat hartzen.

Auzitegi Ekonomiko Administratibo Zentralaren aipatutako irizpide bateratua heldu da Madrilgo Auzitegi Nagusiaren 6-7-16 epaitik, zeinak deklaratu baitu Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaletik jasotako amatasunagatiko prestazio bat PFEZa ordaintzetik salbuetsita dagoela, zeren eta ulertzen baitu PFEZari buruzko Estatuko legearen 7.h) artikuluari buruz egin beharreko interpretazioa dela orokorrean jaiotzagatik, erditze edo adopzio multipleagatik, adopzioagatik eta norberaren kargura seme-alabak edukitzeagatik prestazio publikoetan egiten den salbuespenari buruz egiten den bera, prestazioen jatorria bereizi gabe, eta arauak, autonomia erkidegoetatik edo toki entitateetatik jasotako amatasunagatiko prestazio publikoen jarraitutasuna aipatzean, nahi duena dela onura fiskala zabaltzea beste ente publiko batzuetatik heldu diren prestazioei, ente horiek tokikoak zein autonomikoak izan.

Auzitegi Ekonomiko Administratibo Zentrala Estatuko Zerga Administrazioaren eta eskualdeko auzitegi ekonomiko administratiboaren (besteak beste, Gaztela-Mantxako EAEaren 19-7-13, Erri-

xako EAEaren 30-7-13, Andaluziako EAEaren 20-2-15, 23-10-15 eta 15-1-16 eta Murtziako 13-5-16 ebazpenak)

ebazpenen irizpidea babestera eta amatasunagatiko prestazioa zergatik salbuetsita ez egoteari buruzko irizpide bateratua edukitzera eraman duen argudio nagusia honako hau da:

1.a PFEZari buruzko Estatuko legeak zehaztasunez ezartzen du zein diren salbuetsita dauden Gizarte Segurantzaren kargurako prestazioak (1994ko Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren II. tituluaren IX. kapituluaren araututakoak), eta horien artean ez dago amatasunagatiko prestazioa, zeina lege horretako II. tituluaren IV.bis kapituluaren baitago. Hala eta guztiz ere, PFEZari buruzko Legearen 7.h artikulua salbuespenak hartzen dituen Gizarte Segurantzaz beste ente batzuen kargurako prestazioak zein diren zehazterakoan, legegileak termino orokorrak erabiltzen ditu. Horrela, salbuetsizat deklaratu dituen jaiotzagatik, erditzeagatik, adopzioagatik, norberaren kargura seme-alabak edukitzeagatik eta zurztasunagatiko “gainerako” prestazio publikoak. “Gainerako” determinante erabiltzeak esan nahi du legegilea beste prestazio publiko batzuei buruz ari dela, Gizarte Segurantzaren kargura daudeneetatik desberdinak, azken horiek berriaz bilduta baitaude. Halaber, legegileak termino zabalagoak erabiliz, autonomia erkidegoen kargurako edo toki entitateen kargurako izan eta nolahi ere salbuetsita dauden “amatasunagatiko prestazio publikoak” zehazten ditu, baina kasu horretan kanpo uzten du Gizarte Segurantzaren kargurako amatasunagatiko prestazioen berriazko aipamena, eta horrekin azken horiek salbuestea baztertzen du.

2.a Gizarte Segurantzatik jasotako amatasunagatiko prestazioaren salbuespenak ere ez du tokirik aurkitzen PFEZari buruzko Estatuko Legearen 7.z artikuluan; izan ere, arau horrek edozein Administrazio Publikoren familia-prestazioak eta -laguntzak aipatzen ditu, halako moduz non prestazioak “familiakoak” izan behar baitira, eta Gizarte Segurantzak halakotzat ordaintzen dituen familia-prestazioak aipatutako 1994ko Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren, II. tituluaren IX. kapituluaren araututakoak baitira; horien artean ez dago, aipatu bezala, amatasunagatiko prestazioa.

3.a Aurrekoari lotuta, Auzitegi Ekonomiko Administratibo Zentralak ondorioztatzen du ezen legegileak Gizarte Segurantzaren kargurako mota horretako prestazioen salbuespenaren norainokoa mugatu duela; izan ere, horren indarrez, arau berezia arau orokorraren gainetik dago, eta PFEZari buruzko Legeak Gizarte Segurantzaren kargurako prestazio salbuetsi jakin batzuen berriaz-

ko zedarritzea dakarrenez, ezin da ulertu Gizarte Segurantzaren kargurako prestazioen salbuespena termino zorrotz horietatik harantzago doanik, legegileak beste prestazio publiko batzuetarako ezartzen duen salbuespen kasuen babesean.

4.a Auzitegi Ekonomiko Administratibo Zentralaren iritziz, prestazioen izaera desberdina da Gizarte Segurantzak ematen dituen amatasunagatiko prestazioei eta gainerako ente publikoek ematen dituztenei zerga-tratamendu desberdina ematea justifikatzen duen arrazoi nagusia.

Horri dagokionez, arauaren interpretazio finalista eginez gero, ondorioztatzen dugu Gizarte Segurantzak ordaindutako amatasunagatiko prestazioaren betekizuna dela ordezte zergadunak bere ohiko lanarengatik jasoko lukeen ordainsari arrunta (PFEZetik salbuespena ez dagoena), zeina jada ez baitu kobratzen kasuan kasuko laneko baimena hartu duelako.

Prestazio horiek ematearen benetako arrazoia, horrenbestez, ez da amatasuna bera, babestu beharreko xede gisa, baizik eta amatasunaren egoerak berekin dakarren lan-harremanaren etetea, zeina berdin gertatzen baita amatasun kasuetan eta adopzio kasuetan eta beste prestazio batzuk kobratzeko arauan aurreikusitako gainerako kasuetan, nola baitira harrera, istripuagatiko edo gaixotasunagatiko aldi baterako ezintasuna edo haurdunaldian arriskua izatea.

Azken batean, amatasunagatiko prestazioaren funtsa lan-kontratuaren etetea da eta ez etete hori eragiten duen arrazoia (amatasuna). Aitzitik, Gizarte Segurantzaz beste ente batzuen kargurako prestazio publikoak onuradunaren aldeko liberalizazio huts batzuk dira, zeinak gertatzen baitira gure ordenamenduak bereziki babestekotzat jo duen egoera batean.

#### 4.a Ondorioak

Lehena.- Horrenbestez, kontuan hartuta Nafarroako araudia zeinen argia den arloaren aplikazioan eta Estatuko Auzitegi Ekonomiko Administratiboak estatu mailan eman duen berrespenean, Gizarte Segurantzak ordaindutako amatasunagatiko prestazioa, bai eta amatasunagatiko beste edozein prestazio ere, Foru Komunitateko PFEZa ordaindu beharrekoak dira 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta laneko etekintzat jotzen dira Persona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina onesten duen maiatzaren 24ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren 14.2.a) artikuluan xedatutakoari jarraituz; izan ere artikulua horretan ezartzen da Gizarte Segurantzaren araubide publikoetatik jasotako prestazioak laneko etekintzat joko direla.

Bigarrena.- Aitatasunagatiko prestazioei dago kienez, zehaztu beharra dago amatasunagatiko prestazioen zerga-tratamendu bera dutela, Gizarte Segurantzari buruzko legeriari eta Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoari jarraituz. Hartara, amatasunagatiko prestazioa Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren 133.bis artikuluan horren ondorengoetan araututa dago, eta aitatasunagatiko prestazioa, berriz, 133.octies artikuluan eta horren ondorengoetan jasota dago. Aitzitik, familia-prestazioak 181. artikuluan eta horren ondorengoetan araututa daude. Bai azken artikulua horretan, bai azaroaren 11ko 1335/2005 Errege Dekretuan, aipatutako familia-prestazioak arautzen dira, eta egiazki jaiotzarekin lotutako prestazioak dira: hirugarren seme-alaba eta ondorengoak jaiotzeagatiko edo adoptatzeagatiko ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa eta erditze edo adopzio multipleagatiko ordainketa bakarreko prestazio ekonomikoa.

Horretatik guztiatik heldu dira, alde batetik, amatasunagatiko eta aitatasunagatiko prestazioen antzekotasuna edo baliokidetasuna; eta, bestetik, aipatutako 181. artikuluko prestazioekiko berdintasuna; izan ere, azken horiek jaiotzarekin lotu daitezke.

Aurreko hori guztia berretsita dago Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan, zeinak aitatasunagatiko prestazioa lehenengo aldiz jaso baitzuen. Bai zioen azalpenetik bai artikuluetatik ondorioztatzen da erabateko paralelismoa ezartzen dela amatasunagatiko eta aitatasunagatiko prestazioen artean, eta horiek jaiotzaren kasitik bereizi egiten direla.

Hirugarrena.- Azken batez, behin Gizarte Segurantzari buruzko lege-testuak, bai 3/2007 Lege Organikoa aztertuta, interpretatu beharra dago, irizpide logikoak eta kokapen sistematikokoak erabilia, amatasunagatiko prestazioaren PFEZaren salbuespena kentzearen espirituak eta asmoak beraiekin ekarri behar dutela aitatasunagatiko prestazioaren zerga beraren salbuespena kentzea, eta azken prestazio hori ezin dela sartu jaiotzagatiko prestazio publikoen salbuespenaren barruan.

Laugarrena.- Azkenik, idatziz erantzuteko galderaren formulazioan jasotako bi baieztapen aipatu behar ditugu:

a) Nafarroako arauaren erredakzioa Estatuko arauaren erredakzioaren antzekoa dela.

Baieztapen hori guztiz ukatu beharrekoa da. PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bategina-

ren 7.k) artikulua erredakzioak ezberdintasun aipagarriak ditu Estatuko arauarekiko. Gainera, jada demostratu da ezberdintasun horiek Nafarroako legegileak propio bilatu dituela.

b) 295/2009 Errege Dekretuak ezberdintasun terminologiko hutsak ezartzen dituela jaiotzagatiko prestazioen eta amatasunagatiko zein aitatasunagatiko prestazioen artean.

Baieztape hori ere ukatu beharrekoa da, zeren eta aipatutako errege dekretuaren zioen

azalpenak zehaztasunez aipatzen baitu soilik arautzen dituela amatasunagatiko eta haurdunaldiko arriskuagatiko prestazio eta subsidioak. Eta ez dituela jaiotzagatiko prestazioak arautzen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko martxoaren 5ean

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria  
Mikel Aranburu Urtasun

## **Galdera, Paueko Parlamentuarekiko eta erakundeekiko protokolo- eta lan-harreman instituzionalei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Paueko Parlamentuarekiko eta erakundeekiko protokolo- eta lan-harreman instituzionalei buruzkoa. Galdera 2018ko otsailaren 9ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatzizko galdera egin du (9-18/PES-00033). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak harreman instituzional formalak dauzka Pirinio Atlantikoetako Departamentuarekin. Departamentu horren Kontseilu Nagusiaren edo eztabaida-biltzarraren egoitza Paueko Nafarroako Parlamentua da.

Zehazki, Nafarroak eta Pirinio Atlantikoek 2011ko martxoaren 8tik Mugez gaindiko Lankidetzarako Esparru-akordio bat sinatuta dute. Akordio horren helburua da bi erregioetako agintarien arteko mugez gaindiko ahal den eta lankidetzaren handiena izateko esparru instituzional bat sortzea,

nork bere eskumenen esparruan, eta horrekin interes guztien intereseko proiektuak bultzatu nahi dira, onurak dakartzatenak eta eremu horietan muga egoteak sortzen duen isolamendu ekonomiko, sozial eta kulturala gainditzeko laguntzen dutenak.

Akordioak jasotzen du berariazko hitzarmenak egitea, lankidetzaren horretatik eratortzen diren ekintza jakinak finantzatu, antolatu eta egikaritzeko behar diren baldintza bereziak zehaztuko dituztenak.

Esparru-akordio horren gehieneko iraupena, Baionako Itunaren 9. artikulua arabera, hamar urtekoa da, eta horri dagokionez, eta lankidetzaren hauei jarraitutasuna emateko, 2017ko ekainean hirugarren eta azken gehigarria sinatu zen, akordioa 2020ra arte luzatzeko. Hartan, honako lankidetzaren eremu hauek zehazten dira, beren jarduketaren ildoak eta guzti: Arriskuen kudeaketa, lurralde-garapena, turismoa, mugikortasuna, kultura, kirola eta gazteria, berdintasuna eta beste. Arloan eskudunak diren departamentuen mailan egiten da lankidetzaren, eta Erakunde Harremanetarako Departamentuari horren inguruko koordinazioa dagokio. (Testua erantsi dugu)

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2018ko martxoaren 1ean

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## Nafarroako Gobernuaren eta Pirinio Atlantikoko Departamentuaren arteko esparru-akordioaren gehigarria 2017-2020

### ATARIKOA

2011ko martxoaren 8an, Nafarroako Gobernuak eta Pirinio Atlantikoko Departamentuak Mugez gaindiko Lankidetzarako Esparru-akordioa sinatu zuten, 10 urteko gehieneko iraupenarekin, Baionako Itunaren 9. artikuluari jarraituz. Hiru urtez behin, lanerako helburuak eta arloak zehazten dira hitzarmenaren gehigarri baten bitartez. 2017an, bi aldeek beren konpromisoa berretsi dute 2011-2021 esparru-akordioaren azken gehigarriaren bidez, esparru-hitzarmenaren hasierako lankidetzaren espiritua finkatu eta berriz dinamizatzeko.

Proiektu komunez gainera, gogoetarako espazio bat zabaltzen da, muga-eremuaren eta gure mendiko lurraldeen kudeaketa koordinatua hobetzen lagunduko duten bestelako lankidetzaren formatuetan aurrera egiteko aukera eta egokitasuna baloratzeko.

Horretarako, Nafarroak eta Pirinio Atlantikokoek aintzat hartuko dute Frantziako aldean Pirinio Atlantikoko Departamentuak, lurraldeko, estatuko eta erregioko eragileen partaidetzarekin, egin duen Mendi Plana. Horretarako, gainera, Aragoiko Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen lankidetzaren aktiboa dauka, bai eta Pirinioetako hegoaldeko tokiko eragileena ere.

Abian jarri diren mugez gaindiko, Europako, erregioko eta departamentu mailako garapenerako politika publikoetan sartzen da Mendi Plana, eta haren helburua da tokiko ekimenak dinamizatzeko, lurraldea eraldatzeko eta balioan jartzeko eta mendi-eremuko populazioaren eta zerbitzuen mantentzerako behar den garapena errazteko.

\*\*\*\*\*

Hartara, kontuan hartuta gure mugez gaindiko lurraldearen berezitasuna eta lurralde-errealitate horrek Nafarroari eta Pirinio Atlantikoko Departamentuari sortzen dizkieten erronka eta arazoak,

Kontuan hartuta gure lurraldeen arteko mugez gaindiko lankidetzaren epe ertainean estrategia komun bat eraikitzea bideratuta dagoen garapenerako tresna legitimo gisa,

Ikusita lurraldeetako kolektibo edo agintarien mugez gaindiko lankidetzari buruzko Europako esparru-akordioa, Europako Kontseiluak Madrilen 1980ko maiatzaren 21ean erabakitakoa,

Ikusita, halaber, Espainiako Erresumaren eta Frantziako Errepublikaren arteko Ituna, tokiko

kolektiboaren arteko mugez gaindiko lankidetzari buruzkoa, Baionan 1995eko martxoaren 10ean sinatua,

Ikusita Nafarroako Gobernuaren eta Pirinio Atlantikoko Departamentuaren arteko Mugez gaindiko Lankidetzarako Esparru-akordioa, 2011ko martxoaren 8an sinatua,

Gehigarri honen bidez, Nafarroako Gobernuak eta Pirinio Atlantikoko Departamentuak mugez gaindiko lankidetzaren aldeko eta beren eskumeneko honako gai hauetako proiektuak garatzearen aldeko konpromisoa berritzen dute:

#### Arriskuen kudeaketa

- Mugez gaindiko larrialdi zerbitzuen antolaketak: Pirinio Atlantikoko SDISek koordinatzen du eta SAFER proiektuaren jarraipena da, eta larrialdien mugez gaindiko kudeaketarako ALERT proiektuak Gipuzkoa eta Aragoi ere hartzen ditu. Helburu du larrialdi zerbitzuen arteko komunikazioa eta esku-hartzearen eremu desberdinetako lurraldeen arteko koordinazioa hobetzea (suteak, uholdeak, mendiko larrialdiak eta abar). Azpimarratu beharra dago lankidetzaren hori ereduia izan dela Frantziako eta Espainiako Gobernuen arteko Batzorderako, larrialdien arloko tokiko operazio-protokoloak sinatzerakoan<sup>1</sup>.

- Babes zibileko zerbitzuen arteko koordinazioaren jarraipena: ALERT proiektuan jasotako ekintza berariazkoek haratago, babes zibileko zerbitzuek beren trukeekin jarraituko dute, elkarrekin ezagutza eta mugez gaindiko funtzionamendua errazteko.

- Donejakue Bidearen segurtasuna hobetzea eta hura egokitzea: Donibane Garaziren eta Orreagaren arteko etapan jada hobekuntza batzuk egin dira gure erakundearen arteko mugez gaindiko lanari esker (bidea hobetzea, seinaleztapena hobetzea, erromesentzako eta ibiltarientzako informazioa, "neguko" ibilbidetara joateko orientabideak, Arnegitik...). Lan horietan —Nafarroak eta Pirinio Atlantikokoek koordinatzen dituzte—, gauzatzeko dauden ekintzak egiten jarraituko da; esate baterako, larrialdiak seinaleztatzea, erromesentzako informazioak (estazio meteorologikoak, webcamak...), IKTen erabilera (smartphone aplikazioak, GPSaren erabilera) eta eremu horretako telefono mugikorretarako estaldura.

#### Lurralde-garapena

- Politika publikoaren zerbitzuko satelite bidezko teknologien garapena: PyrenEOS proiektua gauzatzeko. Proiektu honek —2017ko urriaren 21ean Iruñean abiatu zen eta Nafarroako Gobernuak eta POCTEFak finantzatzeko dute— aukera

emanen du mugez gaindiko plataforma bat sortzeko, zeinak ahalbidetuko baitu Sentinel sateliteen irudietan oinarritutako zerbitzu pilotuak garatzea uraren kudeaketaren eta uholdeen, basoen eta nekazaritzaren arloetan, hartara erraztasunak emanez teledetekzioko zerbitzu berriak sortzeko.

1 Espainiako Erresumako Barne ministroaren (Babes Zibilaren eta Larrialdien Zuzendaritza Nagusia) eta Frantziako Errepublikako Barne ministroaren (Segurtasun Zibilaren eta Krisi Kudeaketaren Zuzendaritza Nagusia) arteko Akordio Administratiboa, muga-eremuetako babesari eta larrialdiko laguntzari buruzkoa, Malagan 2017ko otsailaren 20an sinatua.

- Muga-eremuetako hurbiltasuneko proiektuak mantentzea eta garatzea: Baretetze-Erronkari; San Martingo Harria-El Ferial; Irati; Larrun. Baterako garapenerako proiektuen bitartez turismoko dinamika bat sustatzea lau urtaroretan gure mendiko jardueretarako; eskaintza dibertsifikatzea, urte osoan zehar bisitariak eduki ahal izateko, mugaz bi aldeetako turistaren zirkulazioa erraztuz.

- Lurralde-berrikuntzaren arloko lankidetzaren eta esperientziazioa, bereziki landa-guneak biziberritzearen arloan: landa-eremuen antolamenduko eta garapenerako esperientziak elkarrekin trukatzeko, Pirinio Atlantikoetan landa-guneen biziberritzerako erabiltzen den FENICS esperientziazioa erreferentzia gisa hartuz.

- Banda zabalaren garapeneraren arloko sinergiak aprobetxatzea: 2017ko martxoaren 16an Baionan egin zen lehenengo bileran gure muga-lurraldeetan banda zabala ezartzearen arloko lankidetzaren dela-eta izan zen interesaren ondoren, lehenbizi baterako azterlan bat eginen da, zeinak aukera emanen baitu gure mugako eremuetako sareetara sartzeko baldintza tekniko eta juridikoak zehazteko. Geroztik, mugez gaindiko zenbait eremuko hurbilen dagoen sarerako sarbidea izan ahaliko dute, sare hori Espainiakoa izan nahiz Frantziakoa izan, eta azkenik norainoko handiko mugez gaindiko proiektua garatu ahal litzateke gure lurraldeetan banda zabaleko konexioa edukitzeari buruz.

#### Turismoa

Arlo horretan, Nafarroako Gobernuak eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuak lankidetzaren estuan lan egiten ari dira Turismo Departamentuko komitearekin batera aurrera eramanez den estrategia koordinatua garatzeko. Komite horrek 2017an bere ekintza-eremua handitu du, eta Agence d'attractivité et de développement touristique bilakatu da.

- Turismo zerbitzuen arteko lankidetzaren, ukitutako erakundeen elkarri buruzko ezagutza eta jarduketaren protokoloak, lege-esparruari, ebaluazio- eta jarraipen-tresnei (esate baterako, behatokia), lurraldeko eragile nagusiei eta abarrei buruzko ezagutza hobetzeko.

- Bi erakundearen plan estrategikoen ikuspegietan ados jartzea: Nafarroako Gobernuaren turismoko plan estrategiko berria, Departamentuaren turismoari buruzko eskema (2016-2020) eta AaD-Tak Pirinio Atlantikoetarako dauzkan orientatutako estrategikoak. Helburua da datozen hiru urteetarako lankidetzarako gai egokienak gaurkotu edo definitzea: gastronomia, naturako kirolak, ondatzea...

- Nazioarteko baterako sustapena.

- Langileen, enpresaburuen eta turismoko teknikarien prestakuntza eta kualifikazioa, trukeen bitartez eta produktu eta estrategien ezagutza hobea bideratuko duten prestakuntzako ekintza berriaren bitartez.

- Basque Tourrekiko lankidetzari jarraipena ematea, Nafarroarako, Pirinio Atlantikoetarako eta Euskadira baterako turismo destino bat eraikitzeke, bakoitzaren plan estrategikoei egokitzen zaizkien interes partekatuko ekintzak aurreikusiz.

#### Mugikortasuna

- Mugez gaindiko bide berdeen garapena: EDERBIDEA proiektua: Pirinio Atlantikoetako Departamentuak koordinatua eta POCTEFAK finantzatua. Abiaturako jardunaldia irailaren 7an izan zen Baionan, eta 2016tik 2018ra garatuko da: bide berdeen ibilbideak eraiki eta bizikletaren erabilera sustatuko da.

- Neguko bide-zaintzarako dispositiboari jarraipena ematea eta hura optimizatzea: Neguko bide-zaintzarako urteko protokoloa hobetzea, bi lurraldeetako lantaldeen koordinazioa segurtatzeko RD-132 departamentu-errepidea (Frantziar) eta NA-137 errepidea (Nafarroan) mantentze aldera: San Martingo Harria-Belagoako portuaren errepidea da.

- Nazioez gaindiko mailan Eurovélo 1 ibilbidearen eskaintza zikloturista garatzea: AtlanticOnBike proiektuak aukera emanen dio Nafarroari eta Pirinio Atlantikoei Eurovélo 1 ibilbidearen turismosustapena egiteko, Espazio Atlantikoari dagokion programa europarraren finantzaketarekin.

- Eurovélo 3 ibilbidearen baterako garapena: oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuna sustatzeko konpromisoak Eurovélo 3rekin jarraituko du, ibilbide horren behin betiko trazadura zehaztuz eta

Donejakue bidearen inguruan oinezkoentzako edo txirrindularientzako turismo-sustapeneko proiektu baten garapena bideratuz.

Kultura, kirola eta gazteria.

- Kultura: artxibo-zerbitzuen arteko lankidetzak.
- Mugez gaindiko erakusketa bat antolatzea: 2016an zehar, Pirinio Atlantikoetako departamentu-artxiboek eta Nafarroako Artxiboak zenbait lankidetzak abiatu dituzte: dokumentuen mailegua eta jokabide egokien trukea (Nafarroako Artxibo Zerbitzuko zuzendaria Pirinio Atlantikoetara astebetetz bisitan joatea), zeina 2017an ere luzatu baita (Pirinio Atlantikoetako departamentu-artxiboetako bi teknikari Nafarroara bisitan etortzea astebetetz, eta Departamentuak Nafarroako Errege Artxibo Nagusian antolatutako erakusketa ibiltaria). Harreman horretatik proiektu bat sortu da 2018an garraioari eta kirolari buruzko baterako erakusketa bat egiteko, Gipuzkoako eta Huescako diputazioekin batera.
- Trukeko profesionalen jardunaldiak antolatzea: Lehenengoa 2017ko udazkenean egingen da, honako izenburu honen pean: "Artxiboen komunikagarritasuna eta datuak berrerabiltzea".
- Kirola: mugez gaindiko kirol politika komuna sortzea.
- Haurren obesitatearen prebentzioa: Nafarroako Gobernuak koordinatua, ANETO proiektua sortu da, haurren obesitatearen prebentziorako, elikadura osasungarriaren bidez eta jarduera fisikoa sustatuz: bi lurraldeek eremu horietan dauzkaten eskumenak batzen ditu.
- Kirol proiektuak bultzatzea: Gipuzkoarekin eta Aragoirekin batera sinatutako hitzarmenaren esparruan, mugez gaindiko kirolen plataforma bat jarri da abian: federazioentzako informazio-bilerak egin dira eta kirol federazioen mugez gaindiko proiektuak laguntzeko modalitate komunak ezarri dira.
- Kirolaren sektoreko enplegua: Sport Pyrénées Emploi delakoak, kirolaren eta animazioaren arloetan enplegua sustatzeko erakundeak, laguntza emanen dio Nafarroari, informazioa eta aholkua emanaz Nafarroan antzeko egitura bat gara-

tzeko aukera aztertze aldera (enplegu-poltsa, enplegu-emaitzentzako orientabidea eta abar).

- Gazteria

- Suhiltzaile gazteen jardunaldiak antolatzea: Larrialdien, kirolaren eta gazteriaren arloan ezarritako lankidetzan oinarrituta, Nafarroak eta Pirinio Atlantikoek urtero 25 urtetik beherako suhiltzaile gazteen truke-jardunaldi bat antolatuko dute. Helburua da kulturen arteko topaketa erraztea, larrialdien arloko esperientziak elkarrekin trukitzea eta gazteen herritar gisa duten konpromisoari balioa ematea.

- Pirinio Atlantikoetako eta Nafarroako parlamentu gazteen arteko trukeak: Akordio honek aukera emanen du mugaz bi aldeetako gazteek mugez gaindiko harremanak ezar ditzaten, batzuek besteen erakundearen funtzionamendua ezagut ditzaten eta auzoko herrialdeko gazteei buruzko ezagutza hobetu dezaten.

Berdintasuna

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko konpromisoa: Gure erakundearen arteko lehenengo harremanak eta gero, eremu honetan esku hartzen duten eragileek (erakundeak, elkarteak, unibertsitateak...) mugez gaindiko sare bat egituratu nahi da. Arloko profesionalen arteko trukearako jardunaldi bat antolatuko da Gipuzkoako Aldundiarekin batera; horren helburua izanen da sare hori egitea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko mugez gaindiko proiektu bat edukitzeko aukera balortzea.

Mugez gaindiko lankidetzaren beste eremu batzuk.

Aipatutako proiektuez gainera, lankidetzarako zabaltzeko interesa dago. Hori dela eta, lankidetzak zabalik dago bi aldeek egokitzen dituzten eremuetan jarduteko.

Pauen sinatua,

Pirinio Atlantikoetako Departamentuaren izenaren: Jean-Jacques Lasserre, Pirinio Atlantikoetako lehendakari senataria

Nafarroako Gobernuaren aldetik: Uxue Barkos, lehendakaria

## Galdera, atzerrian bizi eta hainbat zentrotan antolatuta dauden nafarrei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, atzerrian bizi eta hainbat zentrotan antolatuta dauden nafarrei buruzkoa. Galdera 2018ko otsailaren 9ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatzizko galdera egin du (9-18/PES-00034). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariari ematen dion informazioa:

Diru-laguntzetarako deialdien bitartez, Nafarroako Gobernuak harremana dauka atzerrian dauden honako nafarren biltoki hauekin:

Bolívar (Argentina)	303 bazkide
Buenos Aires (Argentina)	201 bazkide
Mendoza (Argentina)	131 bazkide
Rosario (Argentina)	285 bazkide
Paris (Frantzia)	78 bazkide

Zehazki, 42.000 euroko laguntza baterako dei egiten da (30.000 euro gastu arruntetarako eta 12.000 euro inbertsioetarako), biltoki horietako kideek bizi diren herrialdean harreman hobeak eta integrazio sozial eta kultural handiagoa lortzeko.

([http://www.navarra.es/home\\_es/Servicios/ficha/5722/Ayudas-a-los-Centros-Navarros-en-el-externo-de-Espana](http://www.navarra.es/home_es/Servicios/ficha/5722/Ayudas-a-los-Centros-Navarros-en-el-externo-de-Espana)).

Bestalde, Gobernuak 16.000 euroko zuzeneko diru-laguntza bat ematen dio Argentinako Navarra Solidaria GKEari, zailtasun ekonomiko handiko egoeran dauden nafarrei laguntzeko sendagileek agindutako medikamentuak eta sendagileen lan-sariak ordaintzen eta baliaezintasuna duten per-

tsonei laguntza sozialak emateko. Laguntza hori ez da sartzen “nazioarteko lankidetzaren” kontzeptuan, zeren eta Argentina ez baita esparru horretan sartzen, baina bai “diasporarentzako laguntza”ren kontzeptuan, kontuan hartuta Argentinak jarraitzen duela izaten nafarren diasporaren munduko herrialde hartzaile nagusia.

Halaber, harreman puntualak daude, nagusiki materialen eta abarrekoen bidalketaren bitartez, Nafarroarekin zerikusia duten beste kolektibo batzuekin; esate baterako Txileko Nafarren Biltoki zaharra, gaur egun Txileko Santiagoko Estadio Espainiarrean sartuta dagoena, edo Kubako La Habanako Asociación Vasco-Navarra de Beneficencia-Euskal Etxearekin.

2017an, gainera, Buenos Airesko Laurak Bat euskal etxearen gonbidapena onartu zen (nafarren presentzia handia du bazkideen artean, ehuneko 20 baitira) Nafarroako Gobernuaren stand batekin parte hartzeko “Buenos Aires Celebra al País Vasco” ekitaldian. Hartan, jai-egun batean, non euskal kolektibitatearen inguruan turismoa sustatu baitzen, 20.000 pertsona inguru bildu ziren.

Nafarroako diasporarekiko beste harreman-bide bat Euskal Artzainak Ameriketara elkartearen bidez egiten dena da; hartan, izan ere, Ameriketara emigratutako euskal artzainak biltzen dira, nagusiki Nafarroako iparraldeko eta Nafarroa Behereko herrietakoak. Elkarrekin lankidetzan jardun izan dugu Euskal Herriaren kulturaren eremuaren zenbait puntutan antolatzen den ekitaldi batean, zeinean euskal artzainen migrazio-fenomenoa eman nahi baita ezagutzera. Fenomeno horrek, izan ere, garrantzi handia izan du Baztanen, Malerrekan, Bortzirietan, Esteribarren, Erroibarren, Artzibarren, Aezkoan eta abarretan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betetz.

Iruñean, 2018ko martxoaren 1ean

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

